



J. B. Gisasola Musika Eskolako teklatuko irakasle lanpostua mugikortasun funtzionalaren bidez betetzeko oinarriak.

1. Deialdiaren xedea.

Deialdi honek teklatuko irakaslearen lanpostua mugikortasun funtzionalaren bidez betetzea du helburu. Langile lan-kontratudun finko edo aldi baterako lan kontrataudunak aurkeztu ahal izango dira, urtebeteko antzintasunarekin. Langile lan-kontratudun finkoek lehentasuna izango dute bitartekoen aurretik.

Lanpostuaren misioa:

Teklatuko eskolak ematea Musika Eskolan.

Eginkizun eta zeregin nagusiak:

Beteko duen lanpostua Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako teklatuko irakasle lanpostua da.

Lanpostuaren oinarritzko betekizunak hauexek dira:

- Teklatu-eskolak prestatzea. Horretarako, partiturak sortzea, partituretan aldaketak egitea errazago interpretatzeko, beste instrumentu batzuetarako idatzitako lanak teklaturako transkribatzea eta abar.
- Eskola ematea, metodologiak ikasle bakoitzaren behar jakin eta zehatzetara egokituz, tresna errazago ikas dezan.
- Ikasleak musika-tresnan egiten duen ikaskuntzaren ebaluazio etengabea, bere interpretazio-teknika hobetzeko hainbat formula aldi oro eskaintzea,... eta abar.
- Ikasleak motibatzea beren musika-tresnarekin parte har dezaten jarduera soziokulturaletan eta eskolatik bertatik antolatu edo programatzen diren kontzertuetan.
- Instrumentista gisa parte hartzea, ahal dela, teklatu-irakaslearen esku hartzea eskatzen duten entzunaldietan eta kontzertuetan.
- Musika Eskolako taldeetan esku hartzen duten ikasleen partiturak moldatzen, aldatzen eta transkribatzen laguntzea.
- Partitura melodikoen osagarri gisa, ikasleari esleitutako lanari dagokion audioa ematea, bai eta abiadura desberdinetako akonpainamenduetan laguntzea ere, ikaslea abiadura errealeko interpretaziora iritsiko ez balitz.
- Abestien akonpainamendu-partituren osagarri, melodia-audioak eskaintzea, 'tempo' desberdinetan, ikasleak ez badu 'tempo' errealeko interpretazioa kontrolatzen.
- Parte hartzeko eskatzen zaion mintegi eta bilera guztietan modu aktiboan aritzea.
- Lanpostuaren kategoriaren arabera agintzen zaion beste edozein eginkizun edo zeregin.

KONTRATU MOTA / TIPO CONTRATO	LANTOKIA / CENTRO	IZENA/DENOMINA CIÓN	T/ G	M/ N	LO / CD	BO / CE	TITULAZIOA / TITULACIÓN	BETEKIZUNAK / REQUISITOS
-------------------------------------	----------------------	------------------------	---------	---------	------------	---------	----------------------------	-----------------------------



LAN-HITZARMENE KOA LABORAL	UDALA/AYUNT AM.	TEKLATU IRAKASLEA / PROFESOR/A TECLADO LANALDIA % 24 JORNADA	A 2	1 3	2 6	1.725, 79	HLO MUSIKAKO GOI-MAILAKO TITULUA EDO PIANO- IRASKUNTZAR AKO HOMOLOGAT UAK / TITULO SUPERIOR DE MÚSICA LOE U HOMOLOGAD OS A EFECTOS DE DOCENCIA PIANO /	3. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA/PE RFIL LINGÜÍSTICO 3 2015-12-17
----------------------------	-----------------	---	--------	--------	--------	--------------	--	--

2. Hautagaien betebeharrak:

Deialdi honetan parte hartzeko baldintzak hauek dira:

- Lan-kontratuko langile finkoa edo aldi baterakoa izatea, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako irakasle gisa.
- Musikako goi mailako titulua (HLO) edo piano irakaskuntzarako homologatuak.
- 3. hizkuntza-eskakizuna HAEE egiaztatuta

3. Eskabideen aurkezpena.

Merezimenduen lehiaketan parte hartzeko eskabideak, baloratu beharreko merezimenduen zerrenda eta horien egiaztapena bi modutan aurkezten ahalko dira:

Elektronikoki: Udalaren webgunetik, eibar.eus atal honetatik: Lan eskaintzak /ofertas de trabajo, barne mugikortasuna / movilidad interna

Paperean: Formulario baten bidez, barne-mugikortasun honen baldintzak betetzen dituzten pertsoneri bidaliko zaiena. Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan aurkeztu ahal izango dira. Eskaera aurreratu egin behar zaio Pertsonal Sailari posta elektronikoz: personala@eibar.eus.

Eskabideak aurkezteko epea: 2022ko uztailaren 27tik 29ra.

Eskaerak modu elektronikoan aurkeztea lehenesten da.



Eskabidean merezimenduen zerrenda jaso behar da. Eskaeran aipatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, eta eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen lortutako merezimenduak izan beharko dira. Alegatutako merezimenduak, eskatzen diren unean agiri bidez egiaztatzen ez badira, ez dira kontuan hartuko.

Eskabidearekin batera ez bada aurkezten alegatutako merezimenduen zerrenda, ezin izango da zuzendu.

Halaber, lan-esperientziagatik merezimenduak alegatuz gero, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako lan-bizitzari buruzko txostena erantsi beharko diote eskabideari (txostena eskuratzeko esteka: <https://bit.ly/3zdwCg8>).

Edozein unetan eskatu ahal izango da dokumentazio gehigarria, parte hartzeko baldintzak eta, hala badagokio, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko.

4. Hautaketa-prozesua.

Merezimenduen balorazioa (gehienez, 30 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte eskuratutako merezimendu hauek baloratuko dira:

Lan-esperientzia:

Lan-esperientzia, gehienez ere, 20 punturekin baloratuko da.

Hezkuntza Administrazioak baimendutako Musika eta Dantza Eskolan irakasle funtzioak beteta Herri Administrazioan eskainitako zerbitzuengatik, gehienez ere 20 puntu emango dira: 0,20 puntu hilabete bakoitzeko (0,0067 puntu egun bakoitzeko).

Hezkuntza Administrazioak baimendutako Musika edo/eta Dantza Eskoletan irakasle funtzioak enpresa pribatuan egiteagatik, gehienez ere 20 puntu emango dira: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko (0,0033 puntu egun bakoitzeko).

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindako denboratzat hartuko dira.

Lanbide-esperientzia Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako lan-bizitzari buruzko txostenaren bidez egiaztatuko da (esteka honen bidez eskura daiteke: <https://bit.ly/3gsHIVQ>). <https://bit.ly/3gqboCP>).

Eskatutako daturen bat ziurtagirian agertuko ez balitz, beharrezko informazioa bermatuko duen dokumentazio osagarriaz osatu beharko lukete.

Titulazio akademikoa.

Ez dira kontuan hartuko lanpostua eskuratzeko baldintza gisa erabiltzen diren tituluak.

Lehiaketari dagokionez, titulazio akademikoak merezimendu gisa hartuko dira, gehienez ere 10 puntu, honela:

Goi Mailako titulazioa



Bete nahi den espezialitateko goi mailako titulua edukitzeagatik: 5 puntu.

Musikarekin, dantzarekin edo/eta pedagogiarekin zuzenean lotutako beste espezialitate batzuetako Goi Mailako Tituluak edukitzeagatik, berriz, 2 puntu titulu bakoitzeko, gehienez ere 4 puntu.

Irakasle titulua. (66ko Planeko erdi mailako titulazioa).

Bete nahi den espezialitateko Irakasle titulua (66ko Planeko Erdi Maila) edukitzeagatik: 3 puntu. 3 puntu.

Musikarekin, dantzarekin edo/eta pedagogiarekin zuzenean lotutako beste espezialitate batzuetako erdi mailako titulua edukitzeagatik: 1 puntu titulu bakoitzeko; gehienez, 2 puntu. Musikarekin, dantzarekin edo/eta pedagogiarekin zuzenean lotutako beste espezialitate batzuetako titulazioak:

Musikarekin, dantzarekin edo/eta pedagogiarekin zuzenean lotura duten LOGSEko erdi mailako titulua edo HLO profesionala edo gaikuntza ofizialak hartuko dira aintzat (289/92 Dekretua): titulu bakoitzeko 0,5 puntu, eta gehienez ere, puntu 1.

5. Hautaketa-prozesuaren egutegia:

Merezimenduak ekainaren 30ean baloratuko dira eta balorazioaren emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko.

6. Ebaluazio-batzordea.

Udaleko Pertsonal Saileko zuzendariak Musika Eskolako zuzendariak eta Musika Eskolako irakasle batek osatuko dute, eta denek dute bozkatzeko eskubidea.